

Don't be Dummy!

Zuk ez duzu ordezkorik



Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak "Don't Be Dummy - zuk ez duzu ordezkorik" bide-hezkuntzako proiektu berria aurkezten du. Gidatze arduratsua, bide segurtasuna eta trafiko-istripuen prebentzioaren inguruan sentsibilizazioa bultzatzen duen ekitaldi ibiltaria da eta Euskadiko ikastetxe ez unibertsitarioetako gazte zuzenduta dago.

Nor da Dummy?

Dummy, 3Dn sortutako abatar elkarreragilea, da ekitaldiko gidaria. Dummy Crash bat auto ekoizleek beren eredu berrien segurtasuna probatzeko erabiltzen duten manikia da.

Gure giza sendotasunera hurbiltzen den materialez sortua, hainbat egoeratan ordezkatzeko gaitu.



Gaur egungo pertsonaia da Dummy, egungo gazteriarentzat diseinu ezaguna duena. Dummy digitalak protagonistatzat dituzten "Ni robota" edo "Izarretako Gerra" gisako filmeek, zein bideojoko ezberdinek, hori adierazten dute.

Ekitaldian zehar Dummyk ondorio zehatz batera eramango dituen egoera eta emozio ezberdinak biziko ditu: **Zuk ez duzu ordezkorik.** Prebentzioa bukaera dramatikoak ekiditeko irizpide ukaezin gisa ageri da.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Ekitaldia

Ekitaldia Dummy abatar birtualak gidatzen du eta errepideari lotutako zerbitzuen profesionalen zuzeneko lekukotzak (ertzaintza, polizia municipala, suhiltzaileak, larrialdietako teknikariak...), trafiko-istripuetako biktimak eta beren senitartekoen testigantzak eta ikusentzunezkoak uztartzen ditu.

Ekitaldia ibiltaria da, herriz-herri egiteko pentsatua, antzoki edo zine areto baten berezitasunak berregiten dituen leku konkretu batzuetan gauzatzen da. Helburua arreta eta hausnarketa bidera ditzakeen giroa sortzea da.



Ekitaldiaren lehendabiziko zatian gure aurkezle birtualak jarrera ozarra, buruarina adierazten du. Jarrera hori, ordea, ekitaldia osatzen duten lekuko testigantzak entzun eta ikusentzunezkoak ikusi ahala aldatzen joango da. Horiek erakusten dituzten ondorioak Dummy batentzat garrantzirik gabekoak izan daitezke baina gure ikusentzuleentzat traumatikoak dira. Dummyek ordezko piezak dituzte, gure gazteek ez ordea. Bera bideojoko bateko pertsonaia eta autoen segurtasuna probatzeko manikia da. Baina... eta zu? Hori da Dummy Crash honen formula; moralismotik ihes egin eta gazte bakoitzari bere ondorio propioak ateratzen utzi.



Zergatik Don't be Dummy?

Gazteria trafiko-istripuak izateko arriskua areagotzen duten faktore multzo baten jabe da. Alde batetik gazte psikologiari lotutako faktoreak daude (exhibizionismoa, norberaren gaitasunen neurritz kanpokotasuna, autoaieztapena, arriskuaren topaketa, talde presioaren eragina) eta beste alde batetik aurreneko urteetako gidatze esperientzia eza.

2016an 14tik 24 urte bitarteko 2.837 gazte trafiko-istripuetan nahasita egon ziren Euskadin eta 30 urte azpiko 6 gazte hil egin ziren.

Gazteen artean gidatzeari lotutako arrisku jokaerak nagusi dira. Gauzak horrela, asko dira alkoholaren eraginpean gidatu dutela edo alkoholaren eraginpean gidatutako norbaiten autoan bidaiari izan direla adierazten duten gazteak.

Alkohola eta gidatzea uztartzea oso arriskutsua da. Azken urteetan gainera, beste era bateko drogak gehitzen ari zaizkio bikote horri, hala nola, Kalamua edo sintetikoak.

Euskadin badago alkoholarekiko nolabaiteko tolerantzia sozial bat eta bere kontsumoa oso hedatua dago. Gazteek helduen jokaera hori berregiten dute. Permisibitate sozial horrek gizarteak alkohola arriskurik gutxien eragiten duen substantzia mendekotasun-sortzaile bezala ulertzea ekarri du berarekin. Era berean, aipagarria da kalamuaren kontsumoak izan duen gorakada. Gorakada hori gizarte osoan nabari den kalamuaren kontsumoaren arriskuaren gutxiestarekin eta tolerantzia sozialarekin lotuta dago.

Berehalako belaunaldi hau, gainera, arrisku berrien aurrean aurkitzen da. Gidatzen ari garela testu bat idazteak, esaterako, 23 aldiz areagotzen du istripu-larria izateko arriskua. Oso datu kezagarria gazteen %43k gidatzen duten bitartean "whatsapp" erabiltzen dutela aitortzen dutela kontutan hartzen badugu.

Don't be Dummy-k motorrezko ibilgailu baten gidari izateko zorian dauden, edo lagunekin batera ibilgailu batean bidaiari izango diren gazteak, errepideak dituen arriskuaren inguruan eta aurretiaz har daitezkeen neurrien inguruan kontzientziatzeko beharri erantzuten dio.

Ekitaldiaren edukiak

Ekitaldian zehar 12 ikusentzunezko proiektatuko dira.

1. Gazteak eta alkohola

Sekuentzia kronologikoa osatzen duten irudi anitzez eratutako bideoklipa da: diskoteka, gazteak dantzan, alkohola eta beste substantzia batzuk, djak, errepidea, autoak, autoaren argiak, oinezkoak eta istripuaren zarata.

Gertukoa duten hizkuntza baten bitartez, bideoklipa, ikuslego gaztearen arreta erakartzea da helburua. Era bat ezaguna eta gertukoa duten lekutik hasten dugu narrazioa, beren aisialdian eta beren asteburuetan berezkoa duten lekuetatik hain zuzen.

Horrek guztiak ideia argi bat erakusteko helburua du: alkohola eta bestelako substantziak ez dira gidatzearekin bateragarriak.



2. Larrialdietako zerbitzuen audioa

Larrialdietako zerbitzuetako audioa, zeinetan istripu batera gerturatzen ari den unitate baten elkarrizketa entzuten dugun. Audioa era bat ilun dagoen espazio batean dago entzungai, horrekin entzuleak gertaeren kontakizunean emozionalki murgildu nahi dira.

3. Trafiko istripuak

Benetako trafiko-istripuetako artxiboko irudiz osatutako bideo hunkigarria.



4. Bideojokoa

Dummy protagonistatzat duen auto lasterketetako bideojokoen estetika duen ikusentzunezkoa. Bideojoko batek eskaintzen duen adrenalina eta benetan gidatzearen arteko ezberdintasuna ezartzea da ideia. Funtsean, honakoa adierazi nahi da: Errepidea ez da bideojoko bat, gidatzea ondorio errealak dituen ekintza da.



5. Zainketa Intentsiboetako Unitate mugikorak eta anbulantziak parte hartzen duten istripuak

Istripu batean parte hartzen duten profesional ezberdinen lana erakusten duten irudi multzoa: anbulantziak, larrialdietako medikuak, ertzainak, polizia municipalak, suhiltzaileak, garabiak, etab. Trafiko-istripu baten atzean dagoen drama, hunkikortasuna eta bide segurtasuneko operatibo guztia erakusten da. Arau-hausteeak ondorioak dituztela erakustea da asmoa.

6. Ospitalea


Istripu bat jasandako pertsona bat ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean sartzen ikusiko dugu. Arduragabekeriaren eta bide segurtasun neurriak arinkeria hartzearen emaitza zein den erakustea da helburua.



Ekitaldiaren edukiak

7. Istripu baten ondorioak. Lesio motak

Trafiko-istripu baten ondorioz sortzen diren lesiorik latzenen inguruko bideoa. Tetraplegiez eta paraplegiez ari gara. Dummy Crash ereduaren gainean grafikoki adierazten da lesio bakoitza zertan datzan eta zeintzuk diren pertsona lesionatuak bere mugikortasunean eta dependentzia mailan izango dituen ondorioak. Arduragabekeriak gidatzeak ekar ditzakeen ondorio larriak erakustea da helburua.



8. Hezur-muinetako lesioak

Gurutzetako ospitalean grabatutako ikusentzunezkoa. Bertan muin lesioak dituzten pertsonak ariketak egiten ikus ditzakegu.



9. Trafiko-istripu baten biktima izan diren senitartekoen testigantzez osatutako bi bideo

Lehenengo pertsonan egindako sentiberatasun osoz betetako testigantzak, zeintzuetan trafiko-istripuen biktimen senitartekoen beren esperientziak kontatzen dituzten. Bideo honen bitartez ikusentzulei erakutsi nahi zaie ez dela beren bizitza arriskuan dagoen bakarra, ondorioak gehien maite dituzten horiek ere sufrituko baitituzte.

10. Larrialdietako teknikaria

Bideo honetan lekuko batek, larrialdietako mediku batek, istripuak gertatu diren lekuetan izandako biziaren sentiberatasun osoz kontatzen ditu.

11. EAEn izandako trafiko-istripuen inguruko datuak

Bideo honetan Europa, Espainia eta Euskadiko gazteek izandako trafiko-istripuen inguruko datuak biltzen dira. Gure errepidetako gidari izateko zorian dauden gazteei informazioa ematea eta gure inguruko errealitatea helaraztea da asmoa.

Horrez gain errepidean istripu bat gertatzen denean lanean aritzen diren profesional ezberdinek eta istripuak sufritu dituzten pertsonen parte hartzen dute ekitaldian.



Ekitaldiak ordu bateko iraupena du. Ekitaldiaren ostean ikusleek balorazio fitxa bat betetzen dute. Fitxa hori Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak aztertuko du.

Don't be Dummy Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak finantzaturako egitasmoa da.

Pdf-a, argazkiak eta bideoak jaisteko lotura: <ftp://DUMMY@62.99.71.21>

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD